



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA  
DPTO. DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

# GALBAHE-E2 HIZKUNTZ TESTA

Euskarazko froga  
B eta D eredueta 5.mailako haurrentzat  
(10-11 urte)

GIDA LIBURUA

1.361:37  
A

25  
Euskara Zerbitzua  
Glotodidaktika-lanak

2. EDIZIOA  
PUNTUAZIO BERRIAK

## **GLOTODIDAKTIKA LANAK-25**



**Euskara Zerbitzua  
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila**

Ale Kopurua: 500  
Lehenengo Argitaraldia: 1986ko Maiatza.  
Bigarren Argitaraldia: 1988ko Abendua.

© Euskal Herriko Komunitate Autonomoko Administrazioa  
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.  
Wellington Dukearen kalea, 2 – 01011. Gasteiz.

Egileak: Ibon Olaziregi eta Josu Sierra.

Testeko marrazkien egilea: Antton Dueso.

Inprimatzailea: Gráficas Santamaría, S.A. Vitoria-Gasteiz.

I.S.B.N.: 84-7542-626-3

Legezko Gordailua: VI-557/1988

Ibon Olaziregi eta Josu Sierra

# **GALBAHE-E2 HIZKUNTZ TESTA**

Euskarazko proba  
B eta D eredueta 5. mailako haurrentzat  
(10-11 urte)

**GIDA LIBURUA**



GASTEIZ, 1988

EUSKO JAURLARITZAREN ARGITALPEN-ZERBITZU NAGUSIA



## **AURKIBIDEA**

TESTAREN DATU TEKNIKOAK .....	9
APLIKAZIO ARAUAK .....	13
ZUZENKETA ARAUAK .....	19
AZKEN PUNTUAZIOAK .....	25
PUNTUAZIO TIPIFIKATUEN TAULAK.....	27

**OSAGARRIAK:**

**ZUZENKETA MOLDEAK**



## TESTAREN DATU TEKNIKOAK

### Izena:

Galbahe-E2 hizkuntz testa: euskara mailaren neurria

### Eskalak:

Galbahe izeneko hizkuntz testak hauetxek dira:

Galbahe-E1 (Euskara 1.eskala) O.H.O.ko 2.maila B eta D ereduak (7-8 urte)

Galbahe-E2 (Euskara 2.eskala) O.H.O.ko 5. maila. B eta D ereduak (10-11 urte)

Galbahe-C1 (Gaztelania 1.eskala) O.H.O.ko 2.maila (7-8 urte)

Galbahe-C2 (Gaztelania 2.eskala) O.H.O.ko 5.maila (10-11 urte)

### Materiala:

Test bakoitza honako materialez osatzen da:

– GIDA LIBURUA eta zuzenketa moldeak

– HAURREN KOADERNOTXOAK (puntuazio orriarekin)

### Jatorria:

Testa Eusko Jaurlaritzako Hezkuntz Politikarako Idazkaritzak eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eragindako E.I.F.E. (Euskararen Irakaskuntza-Faktoreen Eragina) izeneko ikerketarako prestatu zen lehenik (1984). Geroztik EIFE 2 azterlanean neurketa berrien arabeko puntuazioak ezarri ditugu.

### Prestatzaileak:

I. Olaziregi, eta J. Sierra, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailekoak.



### **Tratamendu Informatikoa:**

Eusko Jaurlaritzako Informatika Elkarte (E.J.I.E.).

### **Beste laguntzak:**

Gure eskerrik beroenak testa aurrera ateratzen lagundu duten estatistikari, inkestagile eta abarri.

### **Aplikazioa:**

Testaren froga batzuk taldeka aplikatzekoak dira; beste batzuk banaka.

Aplikazio denbora ez da zehazki mugatua. Halere, esan daiteke taldekako frogek lan efektiboko 45' inguru irauten dutela eta banakakoek 5 bat minutu haur bakoitzeko.

### **Lagina:**

Lagina Euskal Autonomi Elkarteko hiru lurraldeetan hartutako 470 hurrek osatua dago. Denak O.H.O.ko 5.mailakoak, ikastetxe publiko pribatu eta, ikastoletako 132 gelatan banatuak.

### **Testen egokitasuna:**

1987an lortutako emaitzen arabera honako datuak eman daitezke. Kontuan hartu behar da D eta B erduetako puntuazioak ez direla konparagarriak, ponderazio diferenteak bait dituzte.

	B erdua	D erdua
Sujetuak:	235	235
Puntuazioen batezbestekoa:	770.9	1217.3
Puntuazioen desbiderapena:	91.1	349.3
Fidagarritasuna: Fidagarritasuna bi erdien metodoaz kalkulatu zen eta beraz testaren barne koherentziaren indize bat da.	0.93	0.80
Erizpide batekiko baliotasuna. Haur bakoitzaren puntuazioa eta aurreko ikasturteko euskara nota korrelazionatu dira.	0.57	0.50

### Puntuazio orokorra:

Puntuazio Zuzenen (P.Z.) ponderazioa, froga bakoitzak duen bariantzaren arabera egin da\*. Azken ponderazioa hauxe da:

$$\begin{aligned} & \text{B EREDUKO PUNTUAZIO OROKORRA=} \\ & = \text{AU2} \cdot 23 + \text{AU3} \cdot 36.5 + \text{IR1} \cdot 39.2 + \text{IR2} \cdot 38.3 + \text{IDA} \cdot 5.1 + \text{MI2} \cdot 5.6 \end{aligned}$$

$$\begin{aligned} & \text{D EREDUKO PUNTUAZIO OROKORRA=} \\ & = \text{AU2} \cdot 8.5 + \text{AU3} \cdot 16 + \text{IR1} \cdot 22.6 + \text{IR2} \cdot 17.4 + \text{IDA} \cdot 2.9 + \text{MI2} \cdot 2.6 \end{aligned}$$

### Konparagarritasuna:

Test hau (Galbahe-E2) eta serie bereko besteen (E1, C1, C2) puntuazio tipifikatuak ez dira konparagarriak, poblazio desberdinen arabera izanik, ponderazio desberdinak bait dituzte. Azpifrogen puntuazio zuzenek konparaziorako bide egokiagoa ematen dute.

### Frogen xedeak eta deskribapena:

Test honek hizkuntzaren lau trebetasun oinarrikoak aztertzen ditu: Ahozkoaren Ulermena, Mintzamena, Irakurmena eta Idazmena.

AHOZKOAREN ULERMENA izeneko frogek neurtu nahi dute haurrak zer gaitasun duen ahozko mezu bat dagokion irudiarekin lotzeko.

Ahozkoaren Ulermena I, 7-8 urteko haurrentzako froga da soil-soilik eta ez da eskala honetan pasatu behar.

Ahozkoaren Ulermena II-n perpaus nahiko errazak aurki daitezke. III.ean, berriz, erlazio sintaktiko eta kontzeptual zailagoak agertzen dira.

IRAKURMENEzko frogek perpaus idatzi batzuen ulermena eskatzen dute, Irakurmena I-ean dagokien irudia aurkitu behar delarik eta Irakurmena II-n perpausak osatu, aukera desberdinen artean bereiziz.

MINTZAMENean haurren ahozko ekarpena neurtzen da. Mintzamena I, 7-8 urtekoentzat da soil-soilik eta ez da eskala honetan pasatu behar. Mintzamena II-n haurrak istorio bat kontatzean erabiltzen duen hizkuntzaren kalitatea eta zehaztasuna ebaluatzen da.

IDAZMENEko froga Mintzamena II-ren antzekoa da, baina hizkuntza idatzian oinarritua, beronen ezaugarriak, ebaluatzerakoan kontuan hartzen direlarik.

---

\* Ikus M.A. Iztuetaren formula honako liburu honetan: AJURIA, IBARRA, SIERRA, «E.A.B.H.E.M. Euskara Maila neurtzeko testa». Eusko Jaurlaritza, Glotodidaktika-lanak 16, Gasteiz 1984, 43. or.

GALBAHE-E2 hizkuntz testak, eskola giroan egiten diren beste testek bezalaxe, ez ditu hizkuntz gaitasun guztiak neurtzen. Ahozkoaren Ulermen, Irakurmen, Mintzamen eta Idazmeneko frogetan neurtzen dena, beraz, ezin da, besterik gabe, hizkuntz gaitasun "orokor" edo "erabatekoa" bezala interpretatu, baizik eskola giroan landu eta neurtu den gaitasun (edo trebetasun multzo) bezala batez ere, bere ezaugarri eta muga guztiekin.

## APLIKAZIO ARAUAK

OSO GARRANTZITSUA DA ARAUOK ZEHAZKI ERRESPETATZEA
---

HAURREN ARTEAN TARTEA UTZI BEHAR DA, KOPIATZERIK EGON EZ DADIN
---

### HASTEKO ESAN:

*Mahai gainean arkatz bat eta goma bat bakarrik utzi itzazue.*

*Orain paper batzuk banatuko dizkizuet eta jolasak egingo ditugu. (TESTAK BANATU). Lehen lehenik, izena etabar idatzi (LAGUNDU). Gero arkatza mahai gainean utzi nik esan arte. Jolas hauek, politikak eta errazak dira. Ikusiko duzue.*

*Ederki! Pasa lehenengo orria eta doblatu koadernotxo.*

### AHOZKOAREN ULERMENA. ADIBIDEAK

*Ikusten dituzue marrazki horiek? Goian lau dituzue lerro batean (ERAKUTSI). Horiekin hasiko gara. Jolasa hau da:*

*Nik gauza bat esango dut eta zuek gauza horren benetako marrazkia aurkitu behar duzue, lau horien artean. Aurkitzen duzuenean, «x» bat egin goiko koadrotxoan (ERAKUTSI).*

*Goazen proba bat egitera. Gauza bat esango dut eta zuek «x» bat egin benetako marrazkian. Entzun!*

**Hau arraina da**

*Aurkitu duzue? Ederki! «x» bat egiozue goiko koadrotxoan.*

(DENEK ONGI EGITEN DUTELA BEGIRATU)

Orain hurrengo lerroan, bigarrena:

### Mutila korrika doa

*Zein da bere marrazkia?*

*Ederki! Jar ezazue «x» bat. Ulertu duzue? Ba orain zuek bakarrik egingo duzue. Pasa orria....doblatsu koadernotxo eta 4. orrialdean gelditzen gara. Hemen 10 lerro ditugu. Lerro bakoitzean gauza bat esango dut eta zuek marrazkia aurkitu beharko duzue. Bai? Behin bakarrik esango dut esaldi bakoitza.*

OHARRAK:

- **AHOZKOAREN ULERMENA I (AU1)**, HAUR TXIKIAGOENTZAKO FROGA DA ETA EZ DA ESKALA HONETAN AGERTZEN.
- HAU EZ DA ABIADURAZKO TEST BAT. DENEK ERANTZUTEKO ADINBATEKO DENBORA EMAN BEHAR DA. AZPITEST HONETAN (AU2), AHOLKU GISA, ESALDI BAT ETA BESTEAREN ARTEAN, 4-5 SEGUNDUTAKO TARTEA UTZ DAITEKE, HAURREK ERANTZUN DEZATEN.

### AHOZKOAREN ULERMENA II (AU2)

*Hastera goaz (ASTIRO ETA ARGÍ IRAKUR)*

- 1- *Lehenengo lerroa . Bildotsa da.*
- 2- *Bigarren lerroa. . . . Adarra da.*
- 3- *Hirugarren lerroa. . Aizkora da.*
- 4- *Laugarrena . . . . . Oso apain jantzi da.*
- 5- *Bostgarrena . . . . . Gonatik heldu dio.*
- 6- *Seigarrena . . . . . Ura tantaka erortzen da.*
- 7- *Zazpigarrena . . . . . Besapean darama ogia.*
- 8- *Zortzigarrena . . . . . Panpina kendu diote.*
- 9- *Bederatzigarrena. . Ladriloen bila doa.*
- 10- *Hamargarrena. . . . Orratza galdu zaie.*

### AHOZKOAREN ULERMENA III (AU3)

*Ederki! Orria pasatu, koadernoan doblatu eta 5. orrian geldituko gara. Sistema berdinez jarraituko dugu, lehen bezala.*

*Adi egon! Jolas hau piska bat zailagoa da eta. Entzun!*

ESALDIEN ARTEKO GUTXIGORA BEHERAKO TARTEA: 5-6 seg.

- 1- *Lehenengo lerroa . Behia ez da zezena bezain haundia.*
- 2- *Bigarren lerroa. . . . Eskua sutan ipintzen badu erre egingo da.*
- 3- *Hirugarren lerroa. . Jaikitzeke ordua bada ere, ez du batere gogorik.*
- 4- *Laugarrena . . . . . Kokodrilo handia hil du txikiak.*

- 5– Bostgarrena . . . . . Kantatzen ez duen txoria bestearen aurrean dago.  
 6– Seigarrena . . . . . Gora heldu ondoren, motxilarekin jarraitzen du.  
 7– Zazpigarrena . . . . . Hartu duen erlojua itzul diezaion nahi du amak.  
 8– Zortzigarrena . . . . . Ez da oinetakoen kaja ageri.  
 9– Bederatzigarrena. . Bizikleta erosi berria hondatu bazaio ere, berdin dio.  
 10– Hamargarrena. . . . . Ardiak, azkenean, astoa aurreratzea lortu du.

## IRAKURMENA I (IR1)

*Ederki! Orain jolasez aldatzera goaz.*

*Eman buelta koadernotxoari.....Adibide bat egingo dugu.*

*Hemen, erdian, (ERAKUTSI) esaldi batzuk ditugu. Bakoitzak bere zenbakia du. Lehenengo, esaldiak banan bana irakurri behar ditugu eta esaldi bakoitzari bere marrazkia aurkitu. Marrazkia aurkitutakoan, esaldiak duen zenbaki berbera jarriko diogu goiko koadroan.*

*Ikusten duzue 20 esaldi daude eta 10 marrazki. Beraz, esaldi batzuk sobran geldituko dira, «gezurrezkoak» dira. Baina marrazki guztiei zenbaki bat ipini behar diozue.*

*Goazen irakurtzera.*

### 1.– Bat... **Euria ari du kalean**

*Badu honek marrazkirik? Ez.*

*Goazen bigarren esaldira.*

### 2.– Bi... **Txistua jotzen du Andonik.**

*Zein da marrazkia? Eskubikoa, ezta? Bi(2) zenbakia jartzen diogu koadrotxoan.*

*Hirugarren esaldia.*

### 3.– Hiru... **Keparen txakurra pozik dago.**

*Ez du marrazkirik, ezta?*

*Laugarrena.*

### 4.– Lau... **Pailazoak besoak zabaldu ditu.**

*Zein da? Ezkerreko marrazkia. Oso ondo! Zer zenbaki ipiniko diogu? 4a, ezta? Esaldiaren zenbakia delako.*

*Denok ulertu duzue?. (NORBAITEK ULERTU EZ BADU, BERRIRO AZALDU)*

*Ederki! Orain zuek bakarrik egingo duzue. Pasa hurrengo orrialdera, koadernotxoa doblatu eta 8. orrialdean gaude.*

*Ikusten duzue 20 esaldi daude eta 10 marrazki. Beraz, esaldi batzuk sobran geldituko dira, «gezurrezkoak» dira. Baina marrazki guztiei zenbaki bat ipini behar diozue.*

*Hasi zaitezte egiten!*

OHARRAK:  
EZ DAGO ZEHAZKI MUGATUTAKO DENBORARIK. DENBORA ASKI EMAN  
BEHAR ZAIE. GEHIENGOAREN ERRITMOARI JARRAITZEA KOMENI DA  
ETA DENEK BUKA DEZATELA (KASU BEREZIAK EDO MOTELEGIAK  
SALBU). GUTXIGORA BEHERAKO DENBORA: 10-12 MINUTU.

## IRAKURMENA II (IR2)

*Ederki! Buelta emaozue koadernoari. Orain beste jolas interesgarri bat dugu. Hemen osatu gabeko esaldi batzuk ikusten dituzue.*

*Esaldiok osatzeko, 4 erantzun posible dituzue hor, bata bestearen gainean jarrita (ERAKUTSI).*

*Noski, erantzun zuzena bakarra da. Aurkitzen duzuenean, «x» bat jarri behar zaio koadrotxoan.*

*Goazen adibideak egitera.*

*Lehenengoa:*

* Postrean beti	<input type="checkbox"/>	<b>zopa</b>	jaten dut.
	<input type="checkbox"/>	<b>sagarra</b>	
	<input type="checkbox"/>	<b>patata</b>	
	<input type="checkbox"/>	<b>txuleta</b>	

*Erantzuna, sagarra da ezta? Noski, besteak ez dira postreak eta.*

*Orain egin ezazue zuek hurrengo adibidea. Konturatu zaitezte esaldiaren amaiera non dagoen, hor eskubian, marra bertikal horren atzean.*

*Erantzuna.....(BURUAN). Konforme?*

*Problemaren bat duzue? (ZALANTZAK ARGITU) Ederki! Orain zuek bakarrik. Pasatu orrialdea.*

*10. orrialdean hasi eta 11.ean amaitu behar duzue (KONPROBATU BI ORRIALDEAK BETETZEN DITUZTELA).*

OHARRA:  
DENBORA EZ DAGO ZEHAZKI MUGATUA. AHOLKU GISA: 9-10 MINUTU

## IDAZMENA (IDA)

*Ondo! Hurrengo orrialdera pasa!*

*Hemen historiatxo baten irudiak ditugu eta azpian, lerro batzuk bere zenbakiekin. Lerro hauetan idatzi behar duzue historiatxoan pasatzen dena, baina irudiz irudi eta ahal duzuen ongien idatzita gainera. Irudi bakoitzak bere lerroak ditu, zuek bertan idatzi ahal izateko. Zenbakiak ikusten? (ZENBAKIAK ERAKUTSI).*

*Tira ba, hasi zaitetze.*

OHARRA:  
DENBORA EZ DAGO ZEHAZKI MUGATUTA.DENEK BUKATU DEZATELA KOMENI DA (OSO MOTELN KASUA SALBU). GUTXIGORA BEHERAKO DENBORA: 15-20 MIN.

ARIKETA HONEKIN BUKATZEN DIRA APLIKAZIO KOLEKTIBOKO FROGAK.

## MINTZAMENA

OHARRAK:  
- **MINTZAMENA** BANAKA PASATZEKO DA. FROGA HAU APLIKATZEKO TOKI EGOKI BAT AUKERATZEA GOMENDATZEN DA: BESTE JENDERIK GABEKOA, NAHIKO ISILA, ATSEGIN SAMARRA... ETAB.  
- **MINTZAMENA I (MI1)**, HAUR TXIKIAGOENTZAKO FROGA DA ETA EZ DA ESKALA HONETAN AGERTZEN  
- MINTZAMENEZKO FROGA PASATZEN HASI BAINO LEHEN KOMENI DA HAURRARI HURBILTZEKO ZENBAIT GALDERA EGITEA, BATEZ ERE PASATZAILEA EZEZAGUNA BAZAIO (Adib.: Nola duzu izena?, Nongoa zara?...)  
- MINTZAMENEZKO FROGAREN AURRETIK IKASLEAREN IZENA ERE GRABATZEA KOMENI DA

## MINTZAMENA II (MI2)

*Etorri! Eseri hemen. (HURBILKETA GALDERAK)*

*Ederki! Zuri ipuinak gustatzen zaizkizu, ez? Ba begira, hemen duzu bat, oso polita. Lehenengo begira marrazkiak eta gero bakoitzean zer gertatzen den kontatzen hasi.*

*Zuk ipuina kontatuko duzu eta aparato honetan grabatuko dugu. Bai?. Goazen probatzera. Esan zure izena. (IZENA GRABATU). Oso ondo.*



*Euskaraz txukun eta lasai hitzegin, zuk ondo dakizun moduan. Ez duzu nahitanahiez batuan hitz egin beharrik.*

*Historia honela doa (EZKERRETIK ESKUBIRA LERROZ LERRO ETA GOITIK BEHERA SEINELATU)*

*Tira ba, lehenbizi begiratu marrazkiak (SEGUNDU BATZUK UTZI) eta gero ipuina kontatu iezaazu.*

**OHARRAK:**

- SEGUNDO BATZUK UTZI BEHAR ZAIZKIO HAURRARI IRUDIAK BEGIRATZEKO, HISTORIATXOAREN ZENTZU OROKORRAZ JABETU DADIN.
- HAURRA GAIZKI HASIKO BALITZ, ALEGIA, NARRAZIOA EGIN BEHARRERAN DESKRIPZIOA EGITEN, EDO MARRAZKIAK LOTURARIK GABE KOMENTATZEN, EDO ORDENA TXARREAN EDO HIZKUNTZA OSO NORMATIBOA EGIN NAHIAN MANTSOEGI ETA TXARTO HITZ EGITEN ETABAR, ORDUAN, GELDI ARAZI ETA BERRIRO AZALDU GOXO-GOXO NOLA EGIN BEHAR DUEN.

## ZUZENKETA ARAUAK

### AHOZKOAREN ULERMENA II, III ETA IRAKURMENA I eta II

Froga hauek zuzentzeko dagozkien **zuzenketa moldeak** ipini behar dira erantzun orriaren gainean, frogaren siglak eta puntuazio zuzenaren koadrotxoak zuloetatik ikusten direlarik. Asmatutako itemak kontatzen dira eta puntu bana ematen zaie bakoitzeko.

Froga bakoitzaren puntuazio zuzena (P.Z.) 0 eta 10 artekoa da.

Puntuazio zuzena, beraz, orriaren behe aldean ipiniko da eskubitara, horretarako dauden koadrotxoetan.

### IDAZMENA ETA MINTZAMENA II

Bi froga hauek oinarrizko baremo berberaz puntuatzen dira (ikus 14.or.). Puntuatu beharreko unitatea marrazki bakoitzari dagokion ekarpena da, nahiz ahozkoa zein idatzizkoa (beraz sei aldiz aplikatu beharko da baremoa froga bakoitzean).

Baremoak bi parametro lotzen ditu bereziki: **zuzentasun gramatikala** eta **adierazpenaren kalitatea**. Bi erizpide horiek eta beste osagarriren batekin hamar kategoriako eskala sortzen da. Eskala horren zabaltasunagatik oso muturreko hizkuntz gaitasunak ebalua daitezke, jaiotzatiko hiztunetatik bigarren hizkuntza eskuratzen ari direnetaraino.

Bai edukin, bai gramatika aldetik zuzena den mezuari 8 puntu dagozkio normalean. Bederatzia (9) eta hamarra (10) zuzentasunetik gorako ezaugarri batzuk dituzten mezuentzat dira.

Taularen behe alderago, 4 puntuek huts nabarmenen muga suposatzen dute.

Beraz, jeneralizatuz esan daiteke jaiotzatik edo oso goizetik euskaldun direnen ekarpenak 4 eta 10 puntuen artean ibiliko direla normalean, eta agian maizago 6 eta 9 puntuen artean. Jaiotzatiko hiztunengan hutsune

handiak ez bait dira oso ohizko (ikus HUTS GRAMATIKAL HANDIAK, 16.or.) Adierazpen arloko hutsuneak, aldiz, ez dira hain arraroak.

Ordea, etxetik euskara sendoa ez dakartenentzat errazago da hutsune gramatikal handietan erortzea.

Bestalde, 10-11 urteko hiztun jatorrek, normala denez, 7-8 urtekoek baino hutsune gutxiago dituzte eta hauek baino aberastasun gehiago darabilzate.

Bi froga hauen puntuazio gorena 60koa da.

Baremoak, puntuazio zuzen bat emateaz gain, zuzentzailearen hausnarketa lan bat eskatzen eta bideratzen du haurren ahozko eta idatzizko ekarpenen inguruan.

### ADIERAZPEN BAREMOA

	EKARPENAREN DESKRIBAPENA	PUNTUAK
ELEMENTU	<ul style="list-style-type: none"> <li>- MEZU GRAMATIKALKI ZUZENA</li> <li>- EKINTZA NAGUSIA ONGI ADIERAZIA ...</li> <li>- ETA BI EDO GEHIAGO ELEMENTU ABERASGARRI (HITZAK, ESALDIAK, EKINTZAK...)</li> </ul>	10
EXTRAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>- MEZU GRAMATIKALKI ZUZENA ...</li> <li>- EKINTZA NAGUSIA ONGI ADIERAZIA</li> <li>- ETA ELEMENTU ABERASGARRI BAT</li> </ul>	9
ZUZENTASUNA	<ul style="list-style-type: none"> <li>- MEZU GRAMATIKALKI ZUZENA</li> <li>- EKINTZA NAGUSIA ONGI ADIERAZIA</li> </ul>	8
HUTSUNE	<ul style="list-style-type: none"> <li>- MEZU IA ZUZENA: HUTS GRAMATIKAL TXIKI BAT</li> <li>- EKINTZA NAGUSIA ONGI ADIERAZIA</li> </ul>	7
TXIKIAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>- MEZU IA ZUZENA: ESPRESIO POBREKO EDO MAKAL SAMAR LOTUTAKO ESALDIAK (ERREPIKAPENAK ETAB.)</li> <li>- EKINTZA NAGUSIA ONGI ADIERAZIA</li> </ul>	6
	<ul style="list-style-type: none"> <li>- BI EDO GEHIAGO HUTS GRAMATIKAL TXIKI DITUEN MEZUA</li> <li>- EKINTZA NAGUSIA ONGI ADIERAZIA</li> </ul>	5

HUTSUNE	- HUTS GRAMATIKAL HANDI BAT DUEN MEZUA - <b>EDO</b> EKINTZA NAGUSIA GAIZKI ADIERAZIA	4
	- HUTS GRAMATIKAL HANDI BI EDO GEHIAGO - <b>EDO</b> EKINTZA NAGUSIRIK ADIERAZTEN EZ DUEN MEZUA (MEZUA GRAMATIKALKI ZUZENA IZAN ARREN)	3
HANDIAK	- HAN HUTS GRAMATIKAL HANDIAK - <b>ETA</b> EKINTZA NADIAK GUSIRIK ADIERAZTEN EZ DUEN MEZUA	2
	- HITZ SOLTEAK	1
	- MEZURIK EZA	0

## ADIERAZPEN BAREMOARI BURUZKO XEHETASUNAK

### EKINTZA NAGUSIA

Marraskiko ekintza nagusia, bertan agertzen den gertakizun edo egoera inportanteena da. Haurrek modu piska bat diferentziaz interpreta dezakete ekintza nagusia. Interpretazio horiek zilegiak izan daitezke eta ez dute ekarri behar ezinbestean puntuazio bajuago bat.

Adibidez: «Amak botila du dendan eta umeak dirua ematen dio» (MI2,2. irud.)  
«...Gero jaka ostu diote eta joan egin dira» (IDA, 4. irud.)

Ez da erraza, beraz, aurrez jakitea zein diren haurrak gutxienez adierazi behar dituen ekintza nagusiak. Irudi batzutan, bestalde, bat baino gehiago ere izan daitezke aukeran.

Nolanahi ere, eta zenbait aukera ahazteko arriskuaz, hona hemen gutxienezko ekintza nagusien zerrendatxo bat.

### GUTXIENEZKO EKINTZA NAGUSIAK

#### Mintzamena II

1. Dirua eman edo hartu edo dendara bidali
2. Botila edo ura edo... erosi edo eman
3. Norbait topatu, edo ikusi edo norbaitek esan
4. Botila erori edo apurtu
5. Botila bat ikusi edo hartu ibaian
6. Arrain bat egon botilan

## Idazmena

1. Jolasean edo futbolean ibili edo baloia bota
2. Gizonak zerbait esan
3. Kristala apurtu
4. Gizona irten edo haserretu edo segitu edo hurrek ihes
5. Farre egin edo burla egin edo ertzainak ikusi
6. Ertzainak edo poliziak harrapatu edo belarritik heldu

## EKINTZA NAGUSIA GAIZKI ADIERAZIA

Honelakoetan ekintza nagusiari nola hala erreferentzia egiten bazaio ere modu eskasean edo osatu gabean egiten zaio, eta ez da argi gelditzen.

Adibidez: «Joan dira eta botila kras» (MI2, 4. irud.)  
«Botila hartu du» (MI2, 2. irud.)  
«Mutil batek kristalari jo dio» (IDA, 3. irud.)

## EKINTZA NAGUSIRIK ADIERAZI EZ

Ekintza nagusia adierazi gabe gelditzen da batzutan, haurrak esaten amaitu ez duelako edo garrantzitsua ez den ekintzaren bat bakarrik adierazi duelako.

Adibidez: «Biak bizikletan doaz» (MI2, 4. irud.)  
«Mutila negarrez dago» (IDA, 6. irud.)  
«Aita aspertuta geratu da» (MI2, 6. irud.)

## HUTS GRAMATIKALAK

Usario eta arau desberdin askotxo dagoenez ez da batere erraza modu objetibo batean zehaztea zein diren eta zer garrantzi duten huts gramatikalek. Horregatik aukeratu dugu erizpide malgu eta neurri batean subjeti-boa. Malgua dela diogu, okertzat hartu ohi diren lokalismoak huts txikitzat jotzen direlako, entzuten diren inguruetan behintzat, eta beraz baremoa ezin delako berdin aplikatu Gernikan edo Oiartzunen. Subjetiboa da, neurri batean, xehetasunak eta arauak hemen irakurri arren, azken finean test pasatzaileak hartu behar dituelako erabakiak piska bat pentsatu ondoren.

## HUTS GRAMATIKAL TXIKIAK

Lokalismoak, arruntkeriak, errakuntza pertsonalak, edo jarduerazkoak (hizketakoak) izaten dira. Jatorrizko hitzunen eta haurren hizkuntzan maiz samar aurki daitezke, eta baita ere, nola ez, bigarren hezkuntzaren hitzunen.

Esate baterako:

Lokalismo teorikoki okerrak edo hizkera normalean oso hedatutako faltak  
«Esaten dio ia eramaten **badu**» (MI2, 3. irud.)

- «Ertzainak ikusi **diote**» (IDA, 5. irud.)
- «Bizikletan eroaten **dotzo**» (MI2, 4. irud.)
- \* Errakuntza pertsonalak edo noizbehinkakoak, txukun gelditu ez diren zuzenketak etab.
  - «Bi mutil **jolastean** dabilta» (IDA, 1. irud.)
  - «Eman dio .... erosi botila» (MI2, 2. irud.)
- \* Sujetuaren edo beste elementu baten elipsi gogorrak, esaldiaren ulermena kolokan ipintzen dutenean
  - «(Bi mutil futboleak dabilta) eta esaten die han ez ibiltzeko» (IDA, 2. irud.)
  - «Ematen dio dirua eta ematen dio botila» (MI2, 2. irud.)
- \* **Idazmenean**, ortografi hutsak (H, S-Z...) eta morfologi eta sintaxi mailako arrunten nabarmenak
  - «Gizonak **ezan** die ez jolasteko» (IDA, 2. irud.)
  - «Berriro **futbolien** hasi **dienin**» (IDA, 3. irud.)
  - «Kristala puskatu du **baloxakin**» (IDA, 3. irud.)
  - «Belarritik hartu **eintzo**» (IDA, 6. irud.)

## HUTS GRAMATIKAL HANDIAK

Huts handiek hizkuntzaren, kasu honetan euskararen, oinarrizko egiturei erasotzen diete, seguraski jatorrizko hitzuntzat onargarri gertatuko ez liratekeelarik.

Maiz samar aurki daitezke bigarren hizkuntza baten hitzunen, eta noizbehinka haurrengan.

Esate baterako:

- \* Deklinabide mailako falta gogorrak
  - «**Gizona** esan die joateko» (NORK) (IDA, 2. irud.)
  - «Aitak ehun **pezetak** eman dizkio» (NOR Mugagabea) (MI2, 1. irud.)
  - «**Aita mutila** ehun pezeta **eman du**» (NORK eta NORI sintagmak eta aditza) (MI2, 1. irud.)
  - «Gero **etxean** joaten da» (NORA) (MI2, 6. irud.)
- \* Aditz jokaturgabea (jokatu behar denean, noski) edo gaizki jokatur (lokalismoen kasua salbu)
  - «Eta gero **joan etxera...**» (MI2, 6. irud.)
  - «Haurrak **far egiten dira**» (IDA, 5. irud.)
- \* Komunztadura falta gogorrak
  - «**Harritutak** gelditu dira» (MI2, 6. irud.)
  - «Poliziak bi mutilak **ikusi du**» (IDA, 5. irud.)
  - «Gizonak **esan zuen mutilari**» (MI2, 1. irud.)
- \* Euskaraz arruntak diren hitzak ere erdaraz ematea
  - «**Konpratu** du tarro bat **letxe**» (MI2, 2. irud.)

## ESPRESIO POBREKO EDO GAIZKI LOTUTAKO ESALDIAK

Ez-gramatikaltasunean erori gabe ere zehaztasun falta duten esaldiak izaten dira, erakusleetara etabarretara jotzen bait dute,

Adibidez:

«Orduan **zera** erortzen da» (MI2, 4. irud.)

«**Honek** esaten dio...» (MI2, 3. irud.)

edota beren artean makal samar lotuak, batipat errepikatze ugariengatik.

Adibidez:

«Eta .....	Eta .....	Eta .....
«Hemen .....	Hemen .....	Hemen .....
«Orduan.....	Orduan.....	Orduan.....»
«Gero .....	Gero .....	Gero .....

**Idazmenean** behin zigortuko da segidako **bi irudi** lotura berberaz elkartzeagatik. **Mintzamenean** segidako **hiru irudiz** behin.

## EZ DIRA HUTS KONTSIDERATZEN

\*Euskalkietako ahoskerak eta doinuerak

\*Euskalkietako forma jator eta zabalduak

«Neska-mutilak botila bat ikusi dute» (MI2, 5. irud.)

«Botilia jausi **jako**» (MI2, 4. irud.)

«Bizikletan etorri **dan** mutilak...» (MI2, 3. irud.)

Hala ere ahozkoan onartzeakoak diren forma batzuk («due» «debe» «direz»...) ezin dira idatzian onetsi (ikus HUTS GRAMATIKAL TXIKIAK, 15.-16.or.)

## ELEMENTU ABERASGARRIAK

Haurrak, ekintza nagusia zehaztasunez eta gramatikalki zuzen adierazteaz gainera, hizketaren kalitate handiagoa dakarten hitzak, esaerak, perpau-sak, esaten baditu **edo** irudiko ekintzaren bat gehiago adierazten badu, (gutxienezkoaz gain) horiek elementu aberasgarritzat hartuko dira.

Adibidez:

«Aitak ehun pezeta ematen dizkio mutilari **botila bat ur erosteko**» (MI2, 1. irud.)

«... **bizikletadunak** botila dauka» (MI2, 3. irud.)

«... neska **jausteko arriskuan dago**» (MI2, 4. irud.)

«**aldapa batean behera doazela** botila erori zaie...» (MI2, 4. irud.)

«**Kristala apurtu dutenez**, ihesi egiten dute» (IDA, 4. irud.)

«Dendaria **erabat haserre** ateratzen da» (IDA, 4. irud.)

«Botila bat ikusten dute **eta hartu egiten dute**» (MI2, 5. irud.)

«Hurrek farre egiten diote gizonari, **baina ertzainak ikusi egiten ditu**» (IDA, 5. irud.)

# AZKEN PUNTUAZIOAK

Bi eratako informazioa ematen dizu testak:

## 1. FROGEN PERFILA:

Haurraren puntuazio zuzenak markatuko ditugu horretarako prestatutako grafikoan eta batetik besterako marra batez lotu (ikus Haurraren koadernotxoaren azken orrialdea).

Perfilak, informazio «kualitatiboa» eskaintzen du. Zein frogatan dabilen batezbestekotik gora edo behera hain zuzen ere, edo eta zein trebetasunetan huts egin duen... Kontuan hartu ohiz kanpoko zenbait puntuazio, grafikotik kanpora koka daitezkeela.

«**Oharretan**» kontuan hartu beharreko datuak aipa daitezke: *«oso nerbioso egon da Mintzamenean», «ez du Irakurmena I-en mekanika harrapatu»... etab.*

## 2. PUNTUAZIO OROKORRA:

Lehendabizi, **taulak** (ikus 27-30.orr.) hartu eta froga bakoitzean lortutako **puntuazio zuzena, puntuazio tipifikatura** pasa. Gero, Puntuazio Tipifikatuaren batuketa eginik, PUNTUAZIO OROKORRA lortzen da.

Puntuazio Orokorra interpretatzeko aski da dagokion EUSKARA MAILA begiratzea. Horrela lagin orijinaleko poblazioarekin konparatzen dugu haur bakoitza.





## PUNUAZIO TIPIFIKATUEN TAULAK (B EREDUA)

Froga bakoitzaren puntuazio zuzena puntuazio tipifikatu bihurtzeko taula hauetan begiratu behar da.

AU2		AU3		IR1		IR2	
P.Z	P.T	P.Z	P.T	P.Z	P.T	P.Z	P.T
1	23	1	37	1	39	1	38
2	46	2	73	2	78	2	77
3	69	3	110	3	118	3	115
4	92	4	146	4	157	4	153
5	115	5	183	5	196	5	192
6	138	6	219	6	235	6	230
7	161	7	256	7	274	7	268
8	184	8	292	8	314	8	306
9	207	9	329	9	353	9	345
10	230	10	365	10	392	10	383

IDA

P.Z	P.T		
1	5	20	102
2	10	21	107
3	15	22	112
4	20	23	117
5	26	24	122
6	31	25	128
7	36	26	133
8	41	27	138
9	46	28	143
10	51	29	148
11	56	30	153
12	61	31	158
13	66	32	163
14	71	33	168
15	77	34	173
16	82	35	179
17	87	36	184
18	92	37	189
19	97	38	194
		39	199
		40	204
		41	209
		42	214
		43	219
		44	224
		45	230
		46	235
		47	240
		48	245
		49	250
		50	255
		51	260
		52	265
		53	270
		54	275
		55	281
		56	286
		57	291
		58	296
		59	301
		60	306

MI2

P.Z	P.T
1 .....	6
2 .....	11
3 .....	17
4 .....	22
5 .....	28
6 .....	34
7 .....	39
8 .....	45
9 .....	50
10 .....	56
11 .....	62
12 .....	67
13 .....	73
14 .....	78
15 .....	84
16 .....	90
17 .....	95
18 .....	101
19 .....	106

20 .....	112
21 .....	118
22 .....	123
23 .....	129
24 .....	134
25 .....	140
26 .....	146
27 .....	151
28 .....	157
29 .....	162
30 .....	168
31 .....	174
32 .....	179
33 .....	185
34 .....	190
35 .....	196
36 .....	202
37 .....	207
38 .....	213
39 .....	218
40 .....	224

41 .....	230
42 .....	235
43 .....	241
44 .....	246
45 .....	252
46 .....	258
47 .....	263
48 .....	269
49 .....	274
50 .....	280
51 .....	286
52 .....	291
53 .....	297
54 .....	302
55 .....	308
56 .....	314
57 .....	319
58 .....	325
59 .....	330
60 .....	336

**B EREDUKO  
EUSKARA MAILA**

puntuazio orokorra

GOIKOA
ERDIKO GOIKOA
ERDIKO BEHEKOA
BEHEKOA

1.920

1.570

1.220

870

520

## PUNTUAZIO TIPIFIKATUEN TAULAK (D EREDUA)

AU2	AU3	IR1	IR2	
P.Z P.T	P.Z P.T	P.Z P.T	P.Z	P.T
1 ..... 9	1 ..... 16	1 ..... 23	1 ..... 17	
2 ..... 17	2 ..... 32	2 ..... 45	2 ..... 35	
3 ..... 26	3 ..... 48	3 ..... 68	3 ..... 52	
4 ..... 34	4 ..... 64	4 ..... 90	4 ..... 70	
5 ..... 43	5 ..... 80	5 ..... 113	5 ..... 87	
6 ..... 51	6 ..... 96	6 ..... 136	6 ..... 104	
7 ..... 60	7 ..... 112	7 ..... 158	7 ..... 122	
8 ..... 68	8 ..... 128	8 ..... 181	8 ..... 139	
9 ..... 77	9 ..... 144	9 ..... 203	9 ..... 157	
10 ..... 85	10 ..... 160	10 ..... 226	10 ..... 174	

IDA

P.Z P.T		
1 ..... 3	20 ..... 58	41 ..... 119
2 ..... 6	21 ..... 61	42 ..... 122
3 ..... 9	22 ..... 64	43 ..... 125
4 ..... 12	23 ..... 67	44 ..... 128
5 ..... 15	24 ..... 70	45 ..... 131
6 ..... 17	25 ..... 73	46 ..... 133
7 ..... 20	26 ..... 75	47 ..... 136
8 ..... 23	27 ..... 78	48 ..... 139
9 ..... 26	28 ..... 81	49 ..... 142
10 ..... 29	29 ..... 84	50 ..... 145
11 ..... 32	30 ..... 87	51 ..... 148
12 ..... 35	31 ..... 90	52 ..... 151
13 ..... 38	32 ..... 93	53 ..... 154
14 ..... 41	33 ..... 96	54 ..... 157
15 ..... 44	34 ..... 99	55 ..... 160
16 ..... 46	35 ..... 102	56 ..... 162
17 ..... 49	36 ..... 104	57 ..... 165
18 ..... 52	37 ..... 107	58 ..... 168
19 ..... 55	38 ..... 110	59 ..... 171
	39 ..... 113	60 ..... 174
	40 ..... 116	

**MI2**

P.Z P.T	
1 .....	3
2 .....	5
3 .....	8
4 .....	10
5 .....	13
6 .....	16
7 .....	18
8 .....	21
9 .....	23
10 .....	26
11 .....	29
12 .....	31
13 .....	34
14 .....	36
15 .....	39
16 .....	42
17 .....	44
18 .....	47
19 .....	49

20 .....	52
21 .....	55
22 .....	57
23 .....	60
24 .....	62
25 .....	65
26 .....	68
27 .....	70
28 .....	73
29 .....	75
30 .....	78
31 .....	81
32 .....	83
33 .....	86
34 .....	88
35 .....	91
36 .....	94
37 .....	96
38 .....	99
39 .....	101
40 .....	104

41 .....	107
42 .....	109
43 .....	112
44 .....	114
45 .....	117
46 .....	120
47 .....	122
48 .....	125
49 .....	127
50 .....	130
51 .....	133
52 .....	135
53 .....	138
54 .....	140
55 .....	143
56 .....	146
57 .....	148
58 .....	151
59 .....	153
60 .....	156

**D EREDUKO  
EUSKARA MAILA**

**puntuazio orokorra**

GOIKOA
ERDIKO GOIKOA
ERDIKO BEHEKOA
BEHEKOA

950

360

770

680

590

# HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

## EUSKARA ZERBITZUAREN ARGITALPENAK

### GLOTODIDAKTIKA-LANAK:

1. HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA: TOPIKOAK ETA METODOLOGIAK. *N. Gardner.*
2. HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA: GRAMATIKA ARIKETAK. *J.A. Mujika.*
3. HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA: MAILAKETA GRAMATIKALA. *I. Olaziregi.*
4. HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA: NEURPIDEAK (argitaratu gabea).
5. HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA: ZENBAIT ARTIKULU.
6. HAURRAK EUSKALDUTZEN GIÑOLAREN BIDEZ. *I.M. de Lezea-Kukubiltxo.*
7. EUSKARAREN GAITASUN AGIRIA: PROGRAMA.
8. EUSKALTZAINDIAK BATASUNERAKO ESKAINI DITUEN ERABAKIAK.
9. HAURRAK EUSKALDUNTZEN GIÑOLAREN BIDEZ II. *I.M. de Lezea.*
10. IPUIN ZAHAR ETA BERRIAK. *L. Iriondo.*
11. JOLASEAN. *I. Urbietta.*
12. AMONAREN IPUINAK. *E. Genua.*
13. IPUIN GEHIAGO. *A. Lertxundi - J. Lucas - Keinu - Maskarada.*
14. ESKOLARAKO IPUINAK ETA TXOTXONGILOAK. *I.M. de Lezea.*
15. HIZKUNTZ JOLASAK. *M. Sainz - I. Olaziregi.*
16. EABHEM: EUSKARA MAILA NEURTZEKO TESTA. *G. Ajuria - J. Ibarra - J. Sierra.*
17. EGA. 1983KO AZTERKETAK.
18. BAKARKA 1. EUSKERA A DISTANCIA. *J.A. Letamendia.*
19. EUSKALKIZ EUSKALKI. *R.M. Pagola.*
20. KONTU KONTARI. *L. Iriondo.*
21. MUSIKA HEZKUNTZA ESKOLAURREAN. *I. Urbietta.*
22. BAKARKA 2. EUSKERA A DISTANCIA. *J.A. Letamendia.*
23. TREBATZEN. OHO-KO GOIKO ZIKLORAKO HIZKUNTZ ARIKETAK. *M. Sainz.*
24. EGA. 1984 ETA 1985-EKO AZTERKETAK.
25. GALBAHE-E2 HIZKUNTZ TESTA. *I. Olaziregi eta J. Sierra.*
26. GALBAHE-E1 HIZKUNTZ TESTA. *I. Olaziregi eta J. Sierra.*
27. GALBAHE C1 y C2 TESTS DE LENGUA. *J. Sierra eta L. Olaziregi.*
28. ZORTZI-A HIZKUNTZ TESTA. *I. Olaziregi eta J. Sierra.*
29. BAKARKA 3. EUSKERA A DISTANCIA. *J.A. Letamendia.*
30. PIR-5 HIZKUNTZ TESTA. *I. Olaziregi - J. Sierra.*
31. EUSKARAREN OINARRIZKO HIZTEGIA. *J.M. Etxebarria - J.A. Mujika.*

### HIZKUNTZ PRESTAKUNTZA:

1. BIZKAIERAREN IDAZTARAUAK. *A. Arejita - J.M. Irazola - J. Uriarte.*
2. EUSKAL ADITZA: BIZKAIERA ETA BATUA. *J.M. Irazola.*
3. HEZKUNTZ ADMINISTRAZIOKO BEHIN-BEHINEKO HIZTEGIA. *I. Artola - J.M. Berasategi - G. Nazabal - I. Olaziregi.*

### ZABALKUNDE-LANAK:

1. EIMA. Euskal ikasmaterialen bilduma 1984. *Román Berriozabal.*
2. EIMA programa: Euskal ikasmaterialgintza. 1984eko ekitaldiaren azalpen baterabildua.
3. IRALE. Aurkezpen-txostena 1985-86.
4. EIMA. Euskal Ikasmaterialgintza (4 hizkuntzatan).
5. IRALE. Irakaslegoaren alfabetatze-euskalduntzea (4 hizkuntzatan).
6. EGA. Euskararen Gaitasun-agiria (4 hizkuntzatan).
7. IRALE. 1986ko Udarako eta 1986-87ko ikasturterako programa.
8. EIMA. Euskal ikasmaterialen bilduma 1986. *R. Berriozabal.*
9. EIMA. Euskal Ikasmaterialgintza. 1985erako ekintza-plana.
10. EIMA. 1980-1985 urteetako laguntza-deialdien emaitzak.
11. IRALE. 1987ko Udarako eta 1987-88ko ikasturterako programa.
12. IRALE. 1988ko Udarako eta 1988-89ko ikasturterako programa.
13. EIMA. Ikus-Entzunezko Ikasmaterialen bilduma 1986-87. *M. Usabiaga.*
14. EIMA. Euskal Ikasmaterialgintza. 1986rako ekintza plana. *R. Berriozabal.*
15. NOLEGA. Euskal Autonomi Elkarteke Ikastetxeen Barne-Errotulaziorako Eskuliburua. *I. Artola - J.M. Berasategi - I. Muruaga.*
16. NOLEGA. Euskal Giroitze Egonaldietarako Eskuliburua. *R.M. Ardanza - I. Artola - J.M. Berasategi - L.M. Landaluze - A. Mujika - I. Muruaga.*
17. EIMA. Ikus-entzunezko Ikasmaterialen II. bilduma. *M. Usabiaga.*





Galbohe-E2 hizkuntz lekua EK15030362

EUSKO JAURLARITZAREN ARGITALPEN-ZERBITZU NAGUSIA  
SERVICIO CENTRAL DE PUBLICACIONES DEL GOBIERNO VASCO

SALNEURRIA 636 1. ed.  
(B.E.Z. barne duela)





HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAHIA  
DPTO. DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

# GALBAHE-E2 HIZKUNTZ TESTA

Euskarazko froga  
B eta D eredueta 5.mailako haurrentzat  
(10-11 urte)

GIDA LIBURUA

1.361:37  
A

25  
Euskara Zerbitzua  
Glotodidaktika-lanak

2. EDIZIOA  
PUNTUAZIO BERRIAK


IRAKURMENA I

(IR1)

(14)



(16)



(11)



(19)



(20)




(3)



(2)



(6)



# IRAKURMENA I

(IR1)

(14)

(16)

(11)

(19)

(20)

(3)


(2)

(7)

(6)

(9)

OHARRA: Parentesi arteko zenbakiak erantzun zuzena adierazten dute.



1



2



3



4



5



6



7



8




9




10




P.Z.





P.Z.

AHOZKOAREN ULERMENA III [REDACTED] (AU3)



# GALBAHE – E2 (Euskara 2. eskala)

B eta D ereduetakoko 5.mailako haurrentzat

AHOZKOAREN ULERMENA – ADIBIDEAK  
(10-11 urte)

IZENA .....

DATA .....


ADINA .....

IKASTETXEA .....

IKASMAILA .....

HERRIA .....


AMAHIZKUNTZA .....







# AHOZKOAREN ULERMENA – ADIBIDEAK



# AHOZKOAREN ULERMENA II (AU2)

1  
2  
3  
4  
5  
6  
7  
8  
9  
10



P.Z.  

--	--

# AHOZKOAREN ULERMENA III

(AU3)

1				
2				
3				
4				
5				
6				
7				
8				
9				
10				

P.Z.

--	--




## IRAKURMENA – ADIBIDEAK




- 1– Euria ari du kalean.
- 2– Txistua jotzen du Andonik.
- 3– Keparen txakurra pozik dago.
- 4– Pailazoak besoak zabaldu ditu.





# IRAKURMENA I (IR1)



1- Betilun dago katiluarekin.

2- Makuluaren laguntza behar du.

3- Ase egingo da gosaltzen.

4- Hautsita dago botila.

5- Mandoa geldiro dabil.

6- Deihadarka ari da ilehoria.

7- Egutegiari begiratzea komenigarria da.

8- Malkorik gabe negar egiten du.

9- Norbaitek edan du barrukoa.

10- Itsuak irrist egin du.

11- Ezin du oinazea jasan.

12- Liburua esku azpian ipini du.

13- Ezin dezake ahorik zabaldu.

14- Ke izugarria dago gaur.

15- Egutegia ez dago zintzilik.


16- Eskua azpian dauka.

17- Kotxez josita dago kalea.

18- Zeruan hodeiak dabilta.

19- Azkar doa.

20- Kale erditik ibil daiteke gaur.



P.Z.

--	--

## IRAKURMENA II – ADIBIDEAK

Orain, ondoko orrietan, 10 esaldi aurkituko dituzu. Bakoitzak, 4 erantzun posible ditu, baina bat bakarrik dago ondo. Bat aukera ezazu eta "X" bat jarri bere koadroan.

HONA ADIBIDE BATZUK:

● Postrean beti

	zopa	jaten dut.
X	sagarra	
	patata	
	txuleta	

● Nere aitak txapela

	hankan	jartzen du.
	begian	
	besoan	
	buruan	



# IRAKURMENA II (IR2)

1. Jende gehienak

- ezkerreko
- goizeko
- eskubiko
- ikusiko

eskuaz hartzen du kutzarea.

2. Ezin dezaket hainbeste zopa jan;

- gehixeago
- gehiegi
- gutxiago
- dena

ipini behar zenidan.

3. Okindegira joan zaitez eta begiratu

- dantzan.
- aita han dagoen.
- ogia nola egiten da.
- haragia jaten.

4. Eskolara berandu iritsi nahi ez baduzu

- bihar
- geroago
- mantso
- lehenago

irten behar duzu etxetik.

5. Zu zara benetan nere lagunik

- polita.
- liraina.
- maitea.
- handiena.

6. Nik hementxe bertan utzi dut haragia, baina

- katua
- txakurrak
- haizea
- gaur

eramango zuen.

7. Hementxe daukazu irratia. Gaur goizean

- erosi dut.
- sakabanatu dut.
- egosi dut.
- saldu dut.

8. Kotxea hona iritsi zenerako, motoa aspaldi

- zuzenduko luke.
- iritsiko zuen.
- zegoen hemen.
- zen.

9. Neri gehiago gustatzen zait telebista eskola

- gutxiegi.
- baizik.
- baino.
- bezala.

10. Dena esan diot Elenari eta orain

- jakinaren
- armarioaren
- mahaiaren
- aulki

gainean dago.

P.Z.

--	--



# IDAZMENA (IDA)



1



2



3



4



5



6

1

2

3

4

5

6


- 1
- 2
- 3
- 4
- 5
- 6


P.Z.


--	--

(MINTZAMENA II-REN TRANSKRIPZIOA)


(1)




(2)




(3)





(4)



(5)



(6)



# MINTZAMENA II (MI2)

1



2



1

2


3

4

5

6

3



4



5



6



P.Z.

--	--

# GALBAHE – E2 (B EREDUA)

IZENA ..... DATA .....

ADINA ..... IKASTETXEA .....

IKASMAILA ..... HERRIA .....

AMAHIZKUNTZA .....

## FROGEN PERFILA (puntuazio zuzenak)

		TIPIFI- KAZIOA	AU 2	AU 3	IR 1	IR 2	IDA	MI 2
G O I K O A		70					46	54
		69			10		45	53
		68					44	52
		67					43	50-51
		66				10	42	49
		65					41	48
		64		10	9		-	47
		63					40	46
		62					39	45
		61	10				38	44
		60		9			37	43
E R D I K O A	G O I K O A	59			8		36	42
		58					35	41
		57					34	40
		56	9	8			-	39
		55			7		33	37-38
		54					32	36
		53					31	35
		52					30	34
		51		7	6		29	33
		50	8				28	32
E R D I K O A	B E H E K O A	49				6	27	31
		48					-	30
		47		6	5		26	29
		46					25	28
		45	7				24	27
		44					23	25-26
		43		5	4		22	24
		42					21	23
		41					20	22
		40						21
B E H E K O A		39		4	3		19	20
		38	6				18	19
		37					17	18
		36					16	17
		35		3			15	16
		34	5				14	15
		33			2		13	14
		32					-	12-13
		31					12	11
		30					11	10

## PUNTUAZIO OROKORRA

Frogak	Punt. Zuzena	Punt. Tipifikatua
AHOZKOAREN ULERMENA II		
AHOZKOAREN ULERMENA III		
IRAKURMENA I		
IRAKURMENA II		
IDAZMENA		
MINTZAMENA II		
PUNTUAZIO OROKORRA .....		
(Tipifikatuen batuketa)		

EUSKARA MAILA .....

OHARRAK:



# GALBAHE – E2 (D EREDUA)

IZENA ..... DATA .....

ADINA ..... IKASTETXEA .....

IKASMAILA ..... HERRIA .....

AMAHIZKUNTZA .....

## FROGEN PERFILA (puntuazio zuzenak)

		TIPIFI-KAZIOA	AU 2	AU 3	IR 1	IR 2	IDA	MI 2	
G O I K O A		70					54	-	
		69					53	58	
		68					-	57	
		67					52	56	
		66					51	-	
		65					-	55	
		64					50	54	
		63			10		49	-	
		62					-	53	
		61		10			48	52	
	60					10	47	51	
E R D I K O A	G O I K O A	59	10				46	-	
		58					-	50	
		57				9		45	49
		56						44	-
		55						-	48
		54			9			43	47
		53						9	42
		52						41	-
		51					8	-	46
		50						40	45
							44		
E R D I K O A	B E H E K O A	49					39	-	
		48					-	43	
		47					8	38	42
		46			8		7	37	-
		45	9					-	41
		44						36	40
		43						35	-
		42						34	39
		41						-	38
		40				6	7	33	37
						32	-		
B E H E K O A		39		7			-	36	
		38					-	35	
		37					31	-	
		36					30	-	
		35					-	34	
		34					29	33	
		33	8		5		6	28	
		32					-	32	
		31		6			27	-	
		30					26	31	
							30		

## PUNTUAZIO OROKORRA

Frogak	Punt. Zuzena	Punt. Tipifikatua
AHOZKOAREN ULERMENA II		
AHOZKOAREN ULERMENA III		
IRAKURMENA I		
IRAKURMENA II		
IDAZMENA		
MINTZAMENA II		
PUNTUAZIO OROKORRA ..... (Tipifikatuen batuketa)		

EUSKARA MAILA .....

OHARRAK: .....





